BAZTANGO UDALA 2021/04/08 09:06:51 ERREGISTO ZBK.: 852
IRTEERA ER.: 1 ALKATETZA
GAIA: 43 ALKATEAREN EBAZPENA / RESOL.ALCALDIA

Baztango
Udala

ALMANDOZ · AMAIUR · ANIZ
ARIZKUN · ARRAIOZ · AZPILKUETA
BERROETA · ELBETE · ELIZONDO
ERRATZU · GARTZAIN · IRURITA
LEKAROZ · ORONOZ · ZIGA

43/2021 EBAZPENA

*RESOLUCION 43/2021*

JOSEBA OTONDO BIKONDOAk, Baztango (Nafarroa) Udaleko alkate-udalburuak.

*JOSEBA OTONDO BIKONDOA, Alcalde del Ayuntamiento del Noble Valle y Universidad de Baztan, Navarra.*

Legez ditudan eskumenei jarraikiz, 2021eko apirilaren 7an, **EBAZPEN** hau eman dut:

*En virtud de las facultades que legalmente tengo conferidas, el 7 de abril de 2021, dispongo la siguiente, **RESOLUCION**:*

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75. artikulua kontuan hartuta, Toki Entitateeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 13. artikuluarekin lotuta, dedikazio partzialeko karguetan diharduten toki-korporazioetako kideek lansariak jasoko dituzte karguan emandako denboragatik.

Teniendo en cuenta el artículo 75 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, en relación con el artículo 13 de Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales los miembros de las Corporaciones locales que desempeñen sus cargos con dedicación parcial percibirán retribuciones por el tiempo de dedicación efectiva a las mismas.

2019ko ekainaren 27an, Baztango Udalaren osoko bilkurak Oianko Garde Jaunsaras zinegotziaren 2/3ko dedikazioa onartu zuen.

Con fecha de 27 de junio de 2019 el pleno del Ayuntamiento de Baztan aprobó la dedicación de 2/3 de la concejala Oianko Garde Jaunsaras.

Halaber, Baztango Udalak, 2019ko uztailaren 18an egindako ohiko osoko bilkuran, hautetsien ordainsariei buruz hartutako proposamenaren akatsak zuzentzeko erabakia hartu zuen, eta Oianko Garde Jaunsaras zinegotziaren dedikazioa 1/3an finkatu zuen.

A su vez, el Ayuntamiento de Baztan, en sesión plenaria ordinaria celebrada el día 18 de julio de 2019, adoptó acuerdo de corrección de errores de la propuesta adoptada sobre retribuciones de los cargos electos, fijando la dedicación de la concejala Oianko Garde Jaunsaras en 1/3.

2021eko martxoaren 31n, Oianko Garde Jaunsaras zinegotziak idazki bat aurkeztu zuen, dedikazioa kentzeko eskatuz.

Con fecha de 31 de marzo de 2021 la concejala Oianko Garde Jaunsaras ha presentado escrito por el que solicita se le retire la dedicación.

Idazkia aztertu da, eta kontuan hartu da Toki Entitateen Antolaketa,

Visto el escrito y teniendo en cuenta el artículo 41 del Real Decreto 2568/1986,

Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 41. artikulua.

de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales.

**EBATZI DUT:**

***DISPONGO:***

1.- Oianko Garde Jaunsarasen eskaera onartzea eta zinegotzi horren 1/3ko dedikazioa bukatutzat ematea 2021eko martxoaren 31n.

1.- Aceptar la solicitud de Oianko Garde Jaunsaras y dar por finalizada la dedicación de 1/3 de la citada concejala a fecha de 31 de marzo de 2021.

2.- Ebazpen hau Oianko Garde Jaunsaras zinegotziari eta udal gordailuzainari jakinaraztea eta hurrengo osoko bilkuran haren berri ematea, jakinaren gainean egon dadin eta ondorioak izan ditzan.

2.- Notificar la presente resolución a la concejala Oianko Garde Jaunsaras, a la depositaria municipal y dar cuenta de la misma al pleno en la siguiente sesión que se celebre para su conocimiento y efectos.

Baztanen, 2021eko apirilaren 7an / *En Baztan, a 7 de abril de 2021*

Joseba Otondo Bikondoa
Baztango alkatea / *Alcalde de Baztan*

BAZTAN BALLEKO UDALA
Ayuntamiento del Noble Universidad del Valle de Baztan
BAZTAN

HELEGITE EDO ERREKURTSOEN ARAUBIDEA:
Ebazpen honen kontra honako helegite hauetako bat jartzen ahal da aukeran:
a).BERRAZTERTZEKO helegitea, egintza egin duen organuan berean, ebazpen honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, HILABETE BATeko epean.
b).ADMINISTRAZIOAREKIKO helegitea, Administrazioarekiko Auzietarako Auzitegian/Aretoan, dagokion bezala, ebazpen honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, BI HILABETEko epean, edo
c).GORA JOTZEKO helegitea, Nafarroako Administrazio Auzitegiaren aitzinean, ebazpen honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, HILABETE BATeko epean.

*RÉGIMEN DE RECURSOS :*
*Contra esta Resolución cabe interponer optativamente uno de los siguientes recursos:*
*a).Recurso de REPOSICIÓN ante el mismo órgano autor del acto en el plazo de UN MES a partir del día siguiente al de notificación de esta resolución.*
*b).Recurso CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante el Juzgado/Sala, según proceda, de lo Contencioso Administrativo en el plazo de DOS MESES desde el día siguiente al de notificación de esta resolución; o bien,*
*c).Recurso de ALZADA ante el Tribunal Administrativo de Navarra dentro del MES siguiente a la fecha de notificación de esta resolución.*

OIANKO GARDE JAUNSARAS